2025eKO EUSKARALDIAN ERABILIKO DIREN TXAPEN HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- Lizitazioaren xedea.

Lizitazio honen xedea produktu baten hornikuntza kontratatzea da. 2025eko EUSKARALDIAn erabiliko diren txapen hornikuntza, hain zuzen. EUSKARALDIAn parte hartzen duten pertsonek txapa bat eraman behar dute soinean. EUSKARALDIA 2025eko maiatzaren 15tik 25era bitartean gauzatuko da.

2.- Kontratatuko den lana (hornikuntza).

Txaparen ezaugarriak:

- Atzean orratza duten txapa zirkularrak
- Materiala: Kateorratza muntatuta duen letoia
- Kateorratzaren neurria: 25 mm
- Kateorratzaren altuera txaparekiko: 5 mm
- Kolorea: Hiru koloretan, txapa ereduaren arabera
- Akabera: distiratsua
- Tamaina: 38 mm diametroa
- Gutxieneko kalitatea: 300px

Eskaintzarekin batera, txapa ereduak bidaliko dira. Horiek aztertuko dira ezaugarrien betetze maila neurtzeko.

Irudi bi: Ahobizi eta belarriprest



Une honetan ez dago esaterik eredu bakoitzetik zenbat txapa beharko diren. Egiten den proposamena, gutxienekoa, 200.000 txapetakoa da, guztira. Kontratua esleitu ondoren, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak adieraziko dio entitate esleipendunari bakoitzetik zein kopuru zehatza beharko den.

Txapak ekoizteko behar den irudia Eusko Jaurlaritzak eskuratu dio esleipendunari, ahal den formaturik onenean; artxibo digitala bidaliko dio.

3.- Txapak entregatzeko epea eta era.

Txapak Eusko Jaurlaritzan jasoko dira. Helbide honetan:
Eusko Jaurlaritza (Lakua)
Euskara Sustatzeko zuzendaritza

Donostia San Sebastian kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Txapak eskuratuko dira eskaintzan adierazitako epean. Beti ere, kontratua formalizatu eta beranduenik, handik 60 egun naturaleko epean.
Txapak poltsetan jasoko dira. Poltsek 100 eta 200 txapak bilduko dituzte eta bereiztuko dira ahobizi txapak eta belarriprest txapak. Poltsak kartoizko kutxetan bidaliko dira. Kutxetan ondo adieraziko da txapa mota eta poltsen tamaina.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

Edurne Ramon Olano

Firmado digitalmente por Edurne Ramon Olano
Fecha: 2024.05.09 09:00:48 +02'00'

Edurne Ramón Olano
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza
Sustapen zerbitzuko arduraduna